

zakilixut

© Olariagak



Rakel Goñi | ERRATZU

ATZETIKOZ AURRERA



ONDIKOL

Haurrak oilar bila

Egun ttun-ttun, Orakunde edo Oilar-dantza izena du bestak, herriaren arabera

Urduritasuna da nagusi haurren artean, «bat, bi eta hiru» entzuten dutenean, begiak estalirik eta eskuan egurrezko ezpata bat dutela, oilarraren bila hasten dira. Inguruan dauden gurasoak eta lagunak etengabe oihukatzen dute: «Atzera, aurrerago!». Bada oilarraren ondotik behin baino gehiagotan pasatzen dena eta usaindu ere egiten ez duena.

Hala gertatu zitzaion asteazkenean Erratzuko Txomin Etxan-diri, baina azkenean lortu zuen saria: zaretoaren azpiko oilarra berarentzat izan zen.

Egun ttun-ttun edo Orakundearen eguna Baztango herri gehienetan inauterien aurreko ortzegunean ospatzen zen. Denboraren poderioz, txistularien eskasia dela eta, egunak aldatuz joan dira. Asteartean, adi-

bidez, Amaiurren izan zen haurren eguna, Azpilkuetan, ordea, gaur ospatzen ari dira.


Besta, zenbait herritan, aurreko egunean hasten da etxez etxe haurrak baserritarrez jantzita puskak biltzera joaten direnean; garai batean arrautzak, txistorra eta gainontzekoak ttun-ttuneko bazkaria egiteko izaten ziren. Gaur egun, herri gehienetan menua antzekoa da: paella eta oilaskoa.

Goizean, meza, dantzak eta batzuetan jokoak egiten dira. Bazkaria herri txikienetan herriko ostatuan egiten da, eta Elizondon, esaterako, haurrak jattetxeetan ederki jaten dute.

Bazkalondoan, jokoak izaten dira herriko plazan, aulki-dantza, zaku lasterketa... Amaiera aldera izaten da haur guztiek itxoiten duten momentua: oilarra harrapatzea. Zapiarekin begiak estalita eta egurrezko ezpata eskutan dutela, oilarraren bila abiatzen dira. Erratzun oilarra harrapatzen duena Danbolin Nagusi izendatzen dute. Horrek Danbolin Etxekoandrea hautatu zuen, Agurtzane Irigoien; ondoren, bi lagun hartu zituzten: Eneko Inda eta Bibi Bernal. Igandean Danbolin Etxekoandreaen etxean oilarra jango dute guztiek.

Arizkunen ohitura desberdina da, oilarra hartzen duen gattetxoak eskolako andereñoari eman behar dio.

ZURE MEGADENDA INTERNETEN... WWW.MEGADENDA.COM



megadenda

megadenda@megadenda.com

